

# **Baserritar izukaitza**

Orain barri, agure aberats bat bizi zan Otxandion, gabero-gabero bere baserritik kalera tapa - tapa etorten zana. Anglo taberna - zulo batean, kartetan luzaro egin, kopatxo ta kapia artu, ta bere pipatzarrari putz eta putz eragiñik, goizaldeko ordu illunetan abiatzen zan, erri-ondoan egoan bere baserrirantza.

Ta bere andrea kezkatan. Zergerta ete leikion kezkatan beti. Senarrari bere oitura txar ori kendu bear ekiola ta, asmatan jarri geure atso urduria. Erriko mutillen izen batzu etorri yakozan bere burura, baita, ea susto on bat bere senarrari emoteko prest egozan, eurai itaundu be...

Eta gazteak, baietz!

Ba etorren, urrengo gabaz, geure agurea betiko lez bere purutzarrari putz eta putz. Eta kanposantu aurretik igarotzean, andik baitzan bere etxerako bidea, or ikus-ten ditu aren ormaren gañean, izaraz jantzitako bi izaki zuri, euren egal zabalak batera ta bestera astinduaz.

—To...! Purgatorioko arimak...!

Ez bildurtu alan be agure zarra... Ta arien ondora astiro-astiro joanik, makilla goratu, ta euren

gonapeetan sartzen dautse, berko praka illunak agertu-erazoz. Zuriz jantzitako mutillak, duan, moxoluen antzeko «ua-ua» zaratak atara, ta uxatzen dabe, eurek nai orduko, geure agure a sarta.

Etxera joan da, bere andrea

—Purgatorioko arimak ikus

yoadazan.

—Nun?

—Kanposantuko orma-gañetan

—Gogorra dok, ba, ori!

—Bai, gogorregia!

—Ta, baiez igarri, zer iñoen?

—Ezetz?

—Ba, kalera gabero joateko oitura txar ori kenduteko!

—Ez, bada!

—«Ua - ua» kako deadarra egindaustadatan bakarrik.

—Zuriz jantziritako izakiak baozan, parte onakoak ziran.

—Eta, baltzazkoak, ba-yozanan

—Parte txarrekoak!

—Ba, neure oriek, ez yozanan ez bateko ta ez bestekorik.

—Nolakoak, ba, beraz?

—Alderdi bat baltz eta bestea zurikoa eben neure arima oriek!

—Arritzekoa dok, bada, ori!

—Naiko arritzekoa bai! Oingo pika antzeko arima oriek, neuriamarru oker bat egiteko asmotan ebilen pika-ruak ziran.